



UNIBERTSITATEA-ENPRESA-GIZARTEA PROIEKTUAK **(2025)**

Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak oniritzia eman, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztu ondoren, Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzak Unibertsitate-Enpresa eta Gizarte Proiektuen 2025 deialdia argitaratu zuen.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, berrikusi egin ditugu, deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen zituztela egiaztatzeko:

- a) Ikertzaile nagusiaren eta taldeko kideen betekizunak.
- b) Eskatutako agiri guztiak aurkeztu izana.
- c) Proiektuan parte hartzeko sailaren baimena. Agiri hau, nahiz eta aurekeztu beharreko agirien zerrendan ez aipatu(deialdiaren 9. Oinarria), baimen hori gabe ezin daiteke proiektua altan eman.

Egiaztapen horren ondorioz,

ERABAKI DA Ikerketa Errektoreordetzaren web atarian argitaratzeko onartutako eskabideen behin-behineko zerrenda eta zuzendu beharreko alderdiren bat aurkezten duten eskabideak.

Eskatzaileek hamar egun balioduneko epea izango **dute 2025eko maiatzaren 26tik ekainaren 6ra**, adierazitako zuzenketak aurkezteko. **Epe hori igarota, zuzendu gabeko akatsak dituztenek eskabidean atzera egin dutela ulertuko da.**

Agiriak aurkeztea:

Dokumentazioa UPV/EHUn egoitza elektronikoan dagoen erregistro elektroniko bidez aurkeztuko da, eskatutako dokumentazio gehigarria erantsiz:

<https://egoitza.ehu.eus>

Bertan sartuta, ""ESKATU" eremuan "Unibertsitate-Enpresa-Gizarte 2025: zuzenketa" erreferentzia eta "Ikerketa errektoreordetza – UPV/EHUko ikerketa-deialdiak (U02000256)" unitatea adierazi beharko dira.

Dokumentazioa elektronikoki erregistratu ondoren bakarrik emango da aurkeztutzat zuzenketa.

Leioan, 2025eko maiatzaren 23an

IKERKETA-DEIALDIEN ATALA

Ikerketako Errektoreordetza